

PARTE ZAHARREKO DIAGNOSTIKOA DELA-ETA, KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Parte Zaharreko diagnostikoa dela -ta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordearen 2017ko azaroaren 13ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 10ean, Parte Zaharreko diagnostikoa aurkeztu zitzaigun udal taldeei. Egindako lanari garrantzia kendu gabe, hainbat kezka eta galdera jarri genituen mahai gainean, auzoaren beharrak handiak baitira. Besteak beste, udal zerbitzuei buruzko txostenik ez egin izanak harritu gintuen. Hau da, Udalak gaur egun ematen dituen zerbitzuak zeintzuk diren, beste auzoekin alderatuta ohikoak diren ala ez, ea hobekuntzak behar diren, haiek gauzatzeko neurrien azterketak faltan bota genituen... Turismoa, Kultura, Euskara, Gune Publikoak, Gizarte Ekintza, Hezkuntza, Mugikortasuna, Kirolak, Gazteria, Ingurumena, Mugikortasuna... Gai asko dira, plangintza integral bat egin nahi bada. Baina halakorik ez du egin Udal Gobernuak.

Idatziz jasotako erantzunean, diagnostikoa irekia izateaz gain, udal sail guztiek ekarpen eta zuzenketak egiteko aukera izango dutela adierazten da. Gure ustez, Udaleko sail guztien txostenek diagnostikoan txertatuta egon beharko lukete.

Horregatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio udal sail guztien txostenak Parte Zaharrari buruzko diagnostikoan (Kudeaketa integral eta partaidetzarako Proposamena) txerta ditzala, gabeziak edota beharrak ezagutzeko eta auzotarrekin partekatuzeko.

Donostian 2017ko azaroaren 17an



Josu Mirena Ruiz Martin

EH Bildu udal taldeko zinegotzia

EL
01200
697
10655
n1
2011-
06

IFK/
CIF
P2007
400A/
TEE/R/
EL
01200
697
10655
n1
2011-
06